OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO ALT4 EREMUKO ESTALITAKO FRONTOI BERRIA, ALDAGELAK ETA INGURUKO EREMUAREN URBANIZAZIOAREN GAUZATZE PROIEKTUA IDAZTEKO ASISTENTZIA TEKNIKOAREN, OBRA ZUZENDARITZAREN ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ESPEDIENTE KODEA:	2023KO170003
CPV KODEA:	71000000-8 (Arkitektura, eraikuntza, ingeniaritza eta ikuskapen zerbitzuak)

AURKIBIDEA

1. Kontratuaren xedea .
2. Egin beharreko lanen deskribapena.
3. Lanaren garapena eta edukia
    3.1. Proiektuaren edukiak.
    3.2. Obra zuzendaritzaren edukiak.
    3.3. Obrako segurtasun eta osasun koordinatzailearen edukiak.
4. Proiektuak gauzatzeko epea.
5. Lan-taldea. Esleitutako bitartekoak.
6. Esleipendunaren esku jartzen den dokumentazioa.
7. Aurrekontua.

1. ERANSKINA: proiektuaren eremua zehazten duen planoa.
2. ERANSKINA: proiektuaren parte hartze prozesuan erabakitako oina, ebakidura eta argazki muntaiak.

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintzen agiri honi jarraituz egiten den kontratuaren xedea da oiartzungo ALT4 eremuko estalitako frontoi berria, aldagelak eta inguruko eremuaren urbanizazioaren gauzatze proiektua idazteko laguntza-lan teknikoen eta lan horiek gauzatzeko obra zuzendaritzaren eta obraren segurtasun eta osasun koordinatzaile zerbitzua ematea.

Kontratuaren xede bereziak hauek dira:
1.- Proiektuak idaztea. Idatzi beharreko egikaritze-proiektuak obrak kontratatzeko eta era berean idatzi duena ez beste tekniko batek zuzenduta gauzatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen betekizun guztiak bete beharko ditu.
2.- Idatzitako proiektu horien obra zuzendaritza gauzatzea.
3.- Idatzitako proiektu horien obrako segurtasun eta osasun koordinatzaile lanak.

- CPV nomenklaturaren kodetzea, kontratuaren xedeari dagokiona: **71000000-8** (Arkitektura, eraikuntza, ingeniaritza eta ikuskapen zerbitzuak).

2. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA.

Oiartzun udalerria osatzen duten auzoetan espazio publikoaren antolaketan garrantzia duen elementua da frontoia. Egun Elizalde, Arragua, Gurutze, Ergoien, Iturriotz eta Karrika auzoetan frontoi ekipamendua dute. Batzuk estaliak (Elizalde, Arragua, Gurutze, Iturriotz) eta beste batzuk estali gabekoak (Elizalde, Ergoien eta Karrika).
Altzibar auzoa udalerria osatzen duten auzoetan biztanleei dagokionez bigarren auzoa da (3000 aprox) eta ez du frontoirik. 2021/22 urtetan auzoaren erdigunea urbanizatzearekin batera frontoia eraikitzeko aukera aztertu du udalak eta bizilagunekin partekatu ondoren honakoa da aukeratutako proposamena:

Olalde kalea 6-7 hegoaldeko ekipamendutarako lursaila.

Plan Orokorrean onartu zen ALT 4 eremuan kokatzen da. Hiri zorua egoitza kalifikazioa.
Zoru publikoa. Ekipamendu kolektiboa lursaila.
PTS errekak. Landa eremuko ertza.
Lerrokadura eraikuntza Karrika errekatik 15 m, betetzen du.
ARPSI, Lehentasunezko fluxu-gunetik kanpo.
Uholde arriskua. 10/100/500 eremuetatik kanpo.
3.400 m2ko azalerako eremu publikoan frontoia eta auzoko beste aisialdi elementuak txertatu daitezke. (500 m2 frontoia eta 2.900 m2 libre). Frontoiaren kokapenak Olalde kalea 6 eta 7 eraikuntzen hegoaldeko fatxada kontutan hartu beharko du.
Auzoaren erdigunera bidegorritik 350 m ko ibilbidea.
Aisialdiko gunean izaera balioanitza izango duen eraikuntza izango da, pelotan ibiltzeko frontoia, jolaslekua, festetan kontzertuak eta afariak egiteko lekua...

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

Eremuaren deskripzioa:
Parte hartze prozesu baten ondorioz iritxitako emaitzan frontoia eta berdegune bat daude.
Frontisa hegoaldea eta ezker pareta ekialdera orientatuta kokatzen dira.
Pareten kokapenaren ondorioz frontoiaren aurrealdeak Olaldeko bidegorriarekin eta sortzen den berdegunearekin du lotura eta hau dela eta grada txiki bat sortzen da. Frontoia eta bidegorriaren arteko lotura malda eta plataforma lauekin egiten da eta gauza bera gertatzen da Olalde 6-7 etxearen atzealdearekin, hemendik ere lotura egiten zaio eskailera baten bitartez.
Frontoiak iparraldera aldagelak, komunak eta biltegia izango ditu.
Frontoiaren neurriak 30m x 12m (10m-ko kantxa +2 m-ko kontrakantxa) dira, frontisaren altuera 12 m-koa da.
Berdegunean aisialdirako mahaiak, iturria askarekin eta su egiteko parrilla bat proposatzen dira, egoteko eta hamaiketako eta otorduak egiteko leku xume bat egokituz. Aipatu berdegunea bidegorriraino eta Olalde kalea 6-7 etxeean atzealderaino doa eta zati handi batean jardina proposatzen da zuhaitzekin .

Lan bakoitza gauzatzeko egin beharreko lanak Egikaritzeko Proiektuaren mailan gauzatzekoak izango dira , hain zuzen, plegu honi erantsitako planoak azaltzen duen esparruan, eta honako oinarrizko puntu hauek kontuan hartuta:

- Proiektuak garatzeko, kontuan hartuko da Oiartzungo udalerrian indarrean dagoen plangintza eta araubide teknikoa.
- Proiektuak garatzeko, kontuan hartuko da Oiartzungo udalerrian indarrean dagoen lurralde plangintza sektoriala.
- Proiektuak garatzeko, kontuan hartuko da Oiartzungo udalerrian indarrean dagoen plangintza eta araubide teknikoa.
- Proiektuak garatzeko, kontuan hartuko da Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek esaten dutena, adibidez: Errepideak, URA, ingurumena, etabar.
- Beharrezkoak izan daitezkeen datu topografikoak egiaztatu beharko dira, datu bilketa hauen kostua eskainitako kantitatearen barne egonik. Udalak 1/500 eskalan dagoen topografiko bat jarriko du eslipendunaren eskura..
- Beharrezkoak diren argiztapen azterketak egin beharko dira, inguruko argiztapen egokiena lortu arte.
- Berurbanizazio obra honen inguruarekiko integrazioa jaso beharko du proiektuak.
- Gunearen antolamendua, kontuan hartuta irisgarritasun eta ingurumen-irizpideak eta hura mantentzeko eta zaintzeko irizpideak.
- Trafikoaren antolamendua, ibilgailuena (ibilgailuak eta bidegorria) nahiz oinezkoena, garatu beharreko eremuaren mugako bide eta sarbide guztiena.
- Gune horretan dauden zerbitzu eta azpiegitura guztien moldaketa egokia eta gerorako aurreikuspenak.
- Eremuaren barruan oinezkoentzako gune berriak sortzeko aukera aztertu.
- Bertako zuhaitzen azterketa egin beharko da, hauen osasuna eta urbanizazioa garatzeko oztopo diren ala ez aztertuz. Paisaia-irizpideak eta gauzatu beharreko lorategi zaintzaren tratamendurako irizpideak.

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

Erakunde teknikoek emandako aplikazio orokorreko arau espezifikoetara doitu beharko du proiektuak, bereziki honako hauek betez:
- Indarrean dagoen Oiartzungo plangintza eta urbanizazio eta eraikuntzako ordenantzak.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legea.
- Errepideetako Erregelamendu Orokorra, 1812/1994ED, irailaren 2koa.
- Errepidetako instrukzioa, zoru motak definitzerakoan kontuan hartu beharrekoa., 1989ko maiatzaren 23koa.
- 842/2002 errege dekretua, behe tentsioari buruzko erregelamendu elektroteknikoa onesten duena.
- 314/2006 errege dekretua, martxoaren 17koa, eraikuntzako kode teknikoa onesten duena.
- Hornidura eta saneamendu sareak eraikitzeko baldintza orokorrak, Gipuzkoako urak eta Añarbe mankomunitatea.
- Lur azpiko kanalizazioak, urbanizazioetan. NT p1.003 Arau Teknikoa, 1986 urrikoa.
- Telefono-sareak, urbanizazioetan NP-P1001 araua, 1991koa.
- Energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko prozedurak, garraioa, banaketa, komertzializazioa eta hornidura, 1995/2000 ED, abenduaren 1ekoa.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, zeinaren bidez onesten diren hirigunetako irisgarritasun baldintzei, gune publikoei, eraikinei eta informazio eta komunikazio-sistemei buruzko arau teknikoak.
- 10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena..
- 17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
- Uholde arriskuari dagokionez Altzibar auzoak Uholde-kalteragin Potentzial Esanguratsuko Gune izendapena du (UKPEG - erderaz ARPSI – ES017-GIP-OIA-02 Altzibar). Eremu hauetan dago ibaiekin lotutako uholdeen inguruko lurraldeko arrisku potentzial gehiena, bai pertsonen heriotza posibleei dagokienez, bai kalte ekonomikoei eta ingurumenaren gaineko eraginei dagokienez. Beraz, urbanizazio egitasmoa URA ur agentziarekin landu beharko da.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruaren inbentarioa 2021, 20063-00138 kodea duen eremua da. 2011 urtetik aurrera eremuaren garapen urbanistikoan zoru deklarazioa tramitatu zen.
- Horrelako proiektuetarako nahitaez bete behar den indarrean dagoen araudi oro,

<u>Egileen betebeharrak</u>:

· Proiektuak hartzen dituen eginkizun guztiak betetzeko behar diren tituluak edukitzea eta lanbidean aritzeko eskatzen diren baldintzak betetzea. Pertsona juridikoen kasuan, banaka izendatuko dira teknikariak, kontratuan zehaztutako zereginak betetzeko gaitzen duen tituluarekin batera.
· Zuinketa eta proiektaturiko egitura lurzoruaren ezaugarri geoteknikoetara egokitzen diren egiaztatzea.

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

3. LANAREN GARAPENA ETA EDUKIA.

3.1. PROIEKTUAREN EDUKIAK ETA AURKEZPENA.

EDUKIA

Proiektuen eduki minimoak ondorengoak dira:

o Memoria eta eranskinak

Memoria:

- Proiektuaren aurrekariak eta xedea.
- Aurreko azterlanak.
- Aplikatu beharreko araudia.
- Irtenbidearen justifikazioa.
- Obren deskribapena.
- Obren egikaritzaren deskribapena, obrak egiteko modua aztertuz eta deskribatuz.
- Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekiko egokitzapena eta aplikagarri gertatzen diren beste lege-xedapenetan xedatutakoa betetzeari buruzkoa.
- Aurrekontua.
- Egikaratzeko epeak.
- Enpresa sailkapena.

Eranskinak:

- Egitura kalkulua
- Eragindako zerbitzuak.
- Drainatze-sareak.
- Ur sareak.
- Beste zerbitzuak (gasa, telekomunikazioak, etabar.)
- Argiteri publikoaren argi-azterketa.
- Segurtasunari eta osasunari buruzko azterketa.
- Kalitate kontroleko programa
- Eraikitzeko eta eraisteko hondakinak kudeatzeko azterketa.
- Obra-plana

o Planoak: Egikaritze proiektu bati dagozkionak, eta, nolanahi ere, proiektua egoki definitzeko eta idatzi duena ez den beste teknikari batek ulertzeko beharrezkoak direnak.

o Baldintza Tekniko Partikularren plegua

o Aurrekontua eta neurketak (aurrekontua egiteko kontutan izan beharko da langileen kostuak Gipuzkoako konbenioa betetzen duela)

- Neurketak
- Prezioen koadroa.
- Prezio deskonposatuak
- Aurrekontua

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

- Exekuzio proiektuan zehazten den gauzatze plana bete ahal izateko, exekuzio proiektuan udalak obra esleitzeko egingo dituen plegu teknikoetan sartu beharreko baldintzen inguruko gomendioak egingo dira.
- Proiektuak proposatutako soluzioak teknikoki justifikatu behar ditu, aplikagarria den araudi teknikoak eskatzen dituenekin bat etorriz.
- Proiektua idazterakoan, talde esleipendunak hartutako soluzioak Udal Zerbitzu Teknikoekin berrikusi beharko ditu.

Plegu hauetan ezarritako baldintzak ezin izango dira erabili obra lanen ezaugarriak direla eta egungo legeriak eta arautegiak edo eta Oiartzungo Udalak ezartzen dituen ikerketa eta dokumentuen eza justifikatzeko**.**

AURKEZPENA:

Urbanizazio proiektua idatzi ondoren, ale bat emango zaio udalari, behin betiko dokumentua prestatu aurretik, berrikusi dezan.
Udaleko zerbitzu teknikoek planteatzen dituzten aldaketak, zabalpenak edo berrikuntzak kontuan hartuta, behin betiko dokumentua prestatuko da udalak hasierako onarpena eman diezaion.
Alegazioek eta txosten sektorialek (URA, errepideak, ingurumena, etabar.) planteatzen dituzten aldaketak, zabalpenak edo berrikuntzak kontuan hartuta, bateratutako dokumentua prestatuko da behin betikoa izango dena.

Agiri guztiak zehatzak izango dira, eta ordenatuta aurkeztuko dira, idazteko eta marrazteko kalitate oneko paperean; alde horretatik, ez da aurkeztuko neurriz kanpoko planorik edo esku artean erabiltzen zaila den tamainakorik.
Proiektua erregistro elektronikoz egiteaz gain paperean ale bat aurkeztuko da udalean.
Gainera, planoak CAD formatuan aurkeztuko dira, eta aurrekontua, PRESTO formatuan edo BC3 trukagarrian,.

Herritarrei proiektuen edukiaren berri behar bezala emateko, esleipendunak herritarrekin egiten diren bileratara etorri beharko da eta aurkeztu beharko ditu dokumentu bateratuarekin batera, proiektatzen dituen lanen deskripzio informatibo eta laburtua, ondorengo planoekin lagunduta: egungo egoera eta proposatutakoa, egungo kotak eta proposatutakoak eta ebakidura adierazgarrienak.

3.2 OBRA ZUZENDARITZAREN EDUKIA

Obra zuzendaritzak egin beharreko lan nagusiak dira:
o Obra horien Eskumeneko Zuzendaritzaren lanak (obra zuzendaritza eta obra exekutatzeko zuzendaritza).
o Obren kalitate kontroleko programa jarraipena eta prestaketa.
o Hondakinen kudeaketa programa gainbegiratu eta bete.
o Proiektu aldatuak eta/edo osagarriak idaztea.

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

o Txostenak, ziurtagiriak egitea.
o Obra bukaerako edo obra likidazioko agiriak egitea. Exekutatutako obra agiri horiek, kasu bakoitzean nahitaezkoak diren ikus-onetsiekin batera, HILABETE bateko epean entregatuko dira, obra onarpeneko akta sinatzen duten egunetik, eta Udalari entregatu behar zaizkio bai paperean, DIN formatuan, bai euskarri informatikoan, CDan, lizitazioko proiektuak eta Oiartzungo Udalak erabiltzen dituen programa eta bertsio informatiko berdinetan.
o Zuzendaritza fakultatiboaren betebeharra izango da asteko obra bilerak zuzentzea eta haien aktak idaztea. Akta hauek euskaraz idatziak egongo dira.

Plegu hauetan ezarritako baldintzak ezin izango dira erabili obra lanen ezaugarriak direla eta egungo legeriak eta arautegiak edo eta Oiartzungo Udalak ezartzen dituen ikerketa eta dokumentuen eza justifikatzeko**.**

3.3 OBRAREN SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOAREN EDUKIA

Obraren segurtasun eta osasun koordinatzaileak egin beharreko lan nagusiak dira:

a) Prebentzio eta segurtasunari buruzko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea:
- Teknika eta antolakuntza arloko erabakiak hartzerakoan, aldi berean edo elkarren segidan garatuko diren lan ezberdinen edo lan-fase ezberdinen plangintza egiteko helburuarekin.
- Lan edo lan-fase ezberdin hauek egiteko behar izango den denbora balioestean.
b) Obrako jarduerak koordinatzea, kontratugileek eta, hala badagokio, azpikontratugileek eta langile autonomoek, obra eta bereziki, 1627/1997 EDko 10. artikuluak aipatzen dituen lan edo jarduerak, burutzen dituzten bitartean, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15 artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta erantzukizunez aplikatzen direla bermatzeko.
c) Kontratugileak prestatutako Segurtasun eta Osasun Plana eta, hala badagokio, horri erantsitako aldaketak onartzea 1627/1997 Errege Dekretuaren 2.7. artikuluko 2. ataleko azken paragrafoan ezarritakoari jarraiki, Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko eginkizun honetaz, koordinatzailerik izendatzea beharrezkoa ez denean.
d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.
e) Lan-metodoak behar bezala aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak eta eginkizunak koordinatzea.
f) Obrako itxiturak, seinalizazioa, ordena eta garbiketa egokiak direla gainbegiratu.
g) Obran, bakar-bakarrik baimena duten pertsonak sartzeko moduko neurriak hartzea. Zuzendaritza Fakultatiboa arduratuko da eginkizun honetaz, koordinatzailea izendatu behar ez denean.

Plegu hauetan ezarritako baldintzak ezin izango dira erabili obra lanen ezaugarriak direla eta egungo legeriak eta arautegiak edo eta Oiartzungo Udalak ezartzen dituen ikerketa eta dokumentuen eza justifikatzeko**.**

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

4. KONTRATUA EXEKUTATZEKO EPEA.

Proiektu guztiak idazteko epea gehienez **4 hilabetekoa** izango da, kontratua esleitzen den egunetik hasita.

5. LAN-TALDEA. ESLEITUTAKO BITARTEKOAK.

Lizitatzaileak aurreikusiko du zer lan-talde tekniko behar duen. Ildo horretatik, zenbateko lan-talde teknikoa behar duen neurtuko du, baita horrek zenbateko dedikazioa izango duen behar bakoitzerako, lan eta laguntza osagarriak barne.
Era berean, proposatutako lan-taldearen kualifikazioa eta esperientzia zenbatekoak diren ere azalduko du.
Gutxieneko lan taldea honako teknikariek beteko dute:

- Proiektuak idazteko teknikari bat: titulazioa Eraikuntza Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/19999 Legean ezarritakoaren baitan eskatuko da eta gutxieneko 3 urteko esperientzia izango du.
- Obra zuzendaritzarako teknikaria bat: titulazioa Eraikuntza Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/19999 Legean ezarritakoaren baitan eskatuko da eta gutxieneko 3 urteko esperientzia izango du.
- Obraren egikaratze zuzendaritzarentzat teknikari bat: titulazioa Eraikuntza Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/19999 Legean ezarritakoaren baitan eskatuko da eta gutxieneko 3 urteko esperientzia izango du.
- Obraren segurtasun eta osasun koordinazioarentzat teknikari bat: titulazioa Eraikuntza Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/19999 Legean ezarritakoaren baitan eskatuko da eta gutxieneko 3 urteko esperientzia izango du

6. ESLEIPENDUNAREN ESKU JARTZEN DEN DOKUMENTAZIOA.

Udalak proposamena egin ahal izateko ondorengo dokumentazioa jarriko du lizitatzaileen esku:

- 1. eranskina: proiektuaren eremua zehazten duen planoa.
- 2. Eranskina: proiektuaren parte hartze prozesuan erabakitako oina, ebakidura eta argazki muntaiak.

Behin esleipnea eginda udalak ondorengo dokumentazio teknikoa jarriko du esleipendunen esku:

- Eremuaren altxamendu topografikoa (1/500 eskalan).
- Udalak dituen sareen planoak.
- Estudio geoteknikoa.

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

7.- AURREKONTUA:

Lanen eraikuntzaren aurrekontuaren aurreikuspena:

1- Estalitako 31x12ko frontoia eraikitzea	650.000€
2- Urbanizazioa – 1.000m² x 250 €/m²	250.000€
3- Aldagelak eta biltegia – 65m² x 650 €/m²	42.250€
GUZTIRA	942.250€

Proiektuaren idazketa	29.680,88 €
Obra zuzendaritza (arkitektoa eta arkitekto teknikoa)	25.440,76 €
Segurtasun eta osasun koordinazioa	3.500,00 €
GUZTIRA	58.621,64 €
%21 BEZ	12.310,54 €
GUZTIRA BEZ BARNE	70.932,18 €


Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Udal Arkitekto teknikoa
Elektronikoki sinatua

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

1 ERANSKINA: KOKAPEN PLANOA




ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

2. ERANSKINA: PROIEKTUAREN PARTE HARTZE PROZESUAN ERABAKITAKO OINA, EBAKIDURA ETA ARGAZKI MUNTAIAK.

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO ALT4 EREMUKO ESTALITAKO FRONTOI BERRIA, ALDAGELAK ETA INGURUKO EREMUAREN URBANIZAZIOAREN GAUZATZE PROIEKTUA IDAZTEKO ASISTENTZIA TEKNIKOAREN, OBRA ZUZENDARITZAREN ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA





2. Eranskina: Oina

1/300

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO ALT4 EREMUKO ESTALITAKO FRONTOI BERRIA, ALDAGELAK ETA INGURUKO EREMUAREN URBANIZAZIOAREN GAUZATZE PROIEKTUA IDAZTEKO ASISTENTZIA TEKNIKOAREN, OBRA ZUZENDARITZAREN ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA





2. Eranskina: Ebakidura

1/300

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA

ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c

OIARTZUNGO
UDALA



Nork Sinatua / Firmado por: AMAGOIA MARCOS SAIZAR - 15260850M
2023/04/18 01:06:42

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUccde08f2-e6ca-42ba-95a7-93323ab2543c**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310***